

ikurrak

- |  |                      |  |              |
|--|----------------------|--|--------------|
|  | Abiapuntua           |  | Atsedengunea |
|  | Helmuga              |  | Iturria      |
|  | Garraio publikoa     |  | Eliza        |
|  | Turismo bulegoa      |  | Ermita       |
|  | Aparkalekua          |  | Dorretxea    |
|  | Taberna              |  | Errota       |
|  | Natura2000sarea      |  | Gailurra     |
|  | Ikuspegi panoramikoa |  | Kobazuloa    |



San Bernabe ermita

Baldatika



San Kristobal

2020.urtean, San Kristobal ermitako barrizte lanak egiten ari zirela, duela 2000 urtetik gorako hilarri zaharra aurkitu zuten, leihoetako batean. Foruko biztanleek mendeetan gurtutako pieza bitxia da, XVI. mendean, San Kristobal ermita eraiki zutenean berrerabili zutena. Eguzkiaren irudi ederra du piezak.



Gernika-Lumoko Foruen Plazatik abiatuko gara, Foru aldera doan errege bidea hartzeko. GR 38a, ardoaren eta arrainaren ibilbidea, izango dugu gaurko ibilbidearen lehen zatian bidelagun. Bere margo marka zuri-gorriak eta seinaleak jarraituz gero Foruko Urdaibai dorretxea eta San Kristobal ermitara helduko gara. Gernika aldera ikuspegi ederra dago San Kristobal ermita aurretik. Ermita alboko bidegurutzean aurrera jarraituko dugu eta Urberuagako baserri-aztoa zeharkatuko dugu, harik eta harrobi alboko bidegurutzera heldu arte. Hor ezkerreko bidea hartu eta jarraian eskuma aldean jaiotzen den pista hartuko dugu, Upeta edo Arrola erreken parean doana. Ederrak dira errekek tarteka erakutsiko dizkigun ur-jauziak eta ederra da baita erreken ibilgua. Zorte apur batekin baliteke arto lasai honetan orkatzen bat edo beste ikustea. Animalia bera ikusten ez badugu ere, gerta liteke bere oinatzak ikusteko aukera izatea; edo basurdearenak, edo azkonarrarenak... Urtxurriñaga baserrian bukatzen da pista eta hemen GR 38a albo batera utziko dugu, Metxika aldera jarraitzeko.

Urtxurriñagatik Metxika aldera doan errepidea hartuko dugu, ezkerretarantz, baina auzoko lehen baserrien parean Arlaban edo Epersolotik doan pista hartuko dugu, Irabieta baserri albotik abiatu eta Baldatikaraino doana. Bikaina da momentu honetan tontor horrek eskaintzen digun ikuspegia. Baldatikak baditu ermita bitxia, begiratoki txiki bat eta atsedengunetxo bat. Edertasun handiko baserriak ere baditu. Auzoa zeharkatzen duen bidea da basoan sartu eta Baldatika errekaraino jaitsiko dena.

Errekan ur behera jarraituko dugu Goikoerrotta baserriaraino. Puntu horretan PR-BI 181arekin bat egingo dugu eta pistan behera bidelagun izango ditugu ibilbide horren margo markak.


Armotxerriko lehen baserrietara heldu eta ezkerretarantz jarraituko dugu, San Kristobal ermitara heldu arte.

Hemendik Gernikara bueltatuko gara, baina errege bidetik joan beharrean Landaberdeko bidea hartuko dugu, Bermeoko errepidera jaisteko.

### FITXA TEKNIKOA


12,2  
km  
LUZERA

355  
m  
MALDA



## URDAIBAICO IBAIEN SAREA

Upeta eta Baldatika errekek Urdaibako ibai sarearen parte dira eta, beraz, Natura 2000 sarea osatzen dute. Natura 2000 Sarea garrantzi bereziko espezie edo habitat mehatxatuak dituzten lekuen Europako sare ekologikoa da eta sare horren barruan ibaiak berebiziko garrantzia dute. Izan ere ibaiak dira gaur egun korridore ekologiko garrantzitsuak, hau da, hainbat animaliek lurraldean zehar mugitzeko duten ibilbide nagusiak. Bisoi europarra da gure ibai sareko fauna espezie garrantzitsuenetako bat. Azken hamarkadetan bisoi amerikarrak europarra kanporatu du gure erreka ia guztietatik. Orain berau berreskuratzea bihurtu da helburu.



## BALDATIKA ERREKA

Goikoerrotta, Asparroaga, Belabeazkoa, Belaerrotta, Errotabarria, Gorritiz, Patxoerrotta, Txominerrotta, Urrerrotta, Urjauzi, Urkieta, Gazteluerrotta... izan ziren Fokuko errotetako batzuk. Gehienak Baldatika erreken alboan eraiki ziren eta uraren indarrari esker urte luzez egon ziren garia edota artoa ehotzen.

XVII. eta XVIII. mendeen arten Foruko errota kopurua handitu egin zen. Hala ere, jakin badakigu XVIII. mendean gutxienik lehorte handi bat egon zela. Garai hartakoak baititugu Bizkaian eraiki ziren haizerrotta gehienak, Kosnoagako tontorrean eraiki zena bezalakoak. Hortik datorkio Aixerrotta izena.

Goikoerrotta oraindik zutik dirau eta Gorritiz duela gutxi erre zen. Azken hori harrobi aurrean eraiki zuten, Upeta erreka ertzean.

